



mendia errespetatuz!

euskal mendian IBILTZEKO PRAKTIKA onen GIDALIBURUA

Direction de la Communication - Communiqué Par Bresse - Avenue Haüy 7 - Crédits photos : communis-photos.com / B. Veldin

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATIONHIRIGUNE
ELKARGOA

Euskal Mendia itsasoak eragiten duen mendi ingurune batean oinarritutako natura-ondare bat da, paisaia berde eta zainduak bermatzen dituen artzaintzari lotua.

Alabaina, mendiak artzaintza guneak dira, non lurraldeko gizon eta emazteak abeltzaintza estentsiboan ari diren: kabalak larreetako eta bazkalekuetako belarrez bazkatuak dira, libre utzirik.

Mendigune horietan dauden seinalatutako bideak jabeekin izenpetutako “pasabide hitzarmen” baten gaiak dira eta bazkalekuak zeharkatzen dituzte.

ezaugarriak

Ipar Euskal Herriko **biztanleriaren %28** (80 000 biztanle)

Euskara denen arteko ondasuna

Espainiarekiko **mugaren %98**

Ipar Euskal Herriko **azalera osoaren %78** (80 000 biztanle)

%18 laborantza arloko **langile**

1000 transhumantziako **hazle**

%93 **hazkuntza**

mendian, BETI NORBAITEN ETXean GAUDE

Adierazia ez bada ere (seinaleak, xeilak), lurrak partikular edo elkargo batzuen jabegoan daude, eta eremuak, maiz, denen artean kudeatuak dira.

Mendebaldeko partean, itsasbazterretik hurbilena, **herriek** dituzte gehienetan eremu kolektibo horiek kudeatzen. **Mendiko Lur-funtsen Elkarteak** (MLE) ere daude, lur pribatu edo publikoen jabeak biltzen dituztenak, eta eremu horien laborantza-artzaintza edota oihan-kudeaketa segurtatzen dutena. Azkenean, ekialderago, **Sindikatu Batzordeek** dute zenbait herriren arteko lurren kudeaketa segurtatzen. Mendigunea balorizatzeko, zaintzeko eta antolatzeko ardura dute, besteak beste artzaintza eta oihangintzaren arloetan.

LABORANTZA ETA ARTZAINNTZA LANGUNE BAT

Ipar Euskal Herriko mendiaren erliebea patar zuteko eta goratasun apaleko mendigunean ezaugarritzen da. Gizakiek eta kabalek urtaro desberdinetan erabiltzen dituzten hiru maila bereizten dira:

Bazkalekua

Udaberrian, artzainek eta kabalek transhumantzia egiten dute eremu zabal eta ireki batzuetara, libre bizitzeko urria arte. Artzainen etxolak aurkitzen dira (kaiolarrak) non artzainek gasna egiten duten.

Bien arteko eremuak

Maiz patar zutekoak diren eremu horiek iratze eta otez estaliak dira. Behiak eta zaldiak libreki bazkatzen dute, batzuetan urte osoan zehar. Eremu horiek luberritzearen bidez ere zainduak dira.

Ibar zolak

Kabalak larreetan eta eraikinetan atxikiak dira. Bertan ere ditugu etxaldeak aurkitzen. Larreak udaberrian eta udan moztuak dira.

BIOanIZtasun OHARGARRIKO HABITATA

Kabalak trabari minbera dira. Hurbilegi izatea estresagarria zaie eta ohiz kanpo-ko jarrera eragin dezake.

KABALAK SAIHESTEN DITUT

Kabalak bidean baldin badira, saihesten itzazu ibilbidetik atera behar bazara ere. Mendiko bizikletaz, **abiadura motel ezazu, bizikletatik jaitsi** kabaletatik hurbil izan baino lehen. Seinalatutako bideak hetsitako xela bat iragatera eramaten bazaitu, berriz hets ezazu zure gibeletik.

Hazkuntzarako animaliak errespetatzea, abeltzaina eta honen lana errespetatzea da.

ZAKURRA LOTURIK ATXIKITZEN DUT

Kabalek ez dute baitezpada beste **animaliekin egoteko** ohitura, artzain zakurretatik aparte.

Beldurturik, gutiago jan dezakete, esne gutiago ekoiztu, beren kumea galdu ernaldian, edota beren bu-rua zauritu edo hil ihes egiten saiatuz.

Animalia ETA abeltzainarendako hainbat kalte.

NATURAGUNEAK ETA EREMU BABESTUAK ERRESPETATZEN DITUT

Euskal Mendia naturagune nahasketa ba-tean oinarritzen da: larreak, soropilak, gune hezeak hala nola zohikaztegiak, oihanak, errekek, edota arroka guneak.

Eremu desberdin horiek lorea eta aberedi aberatsak aterpetzen dituzte eta babes, ihi-zi eta pasabide guneak dira tokiko espezie ugariarentzat. Alabaina, **espezie endemiko** mota asko aurkitzen dira (muturluze pirinio-tarra, kantauriar sugedorria, etab.), batez ere maila gorenetan. Halaber, Euskal Mendia hegaztiendako funtsezko pasabidea da, mi-graziorako hiru lepo nagusirekin: Orgambi-dexkako lepoa Zuberoan, Lizarrietako lepoa Saran, Linduseko lepoa Bankan.



**Loreak eta ondoak
biltzen ditut natura
asko maite dudalako!**

Babestutako landareak eta loreak aurki daitezke espezie arrunten artean. Behatzeko edo argazkitan hartzeko gomendatua da. Edozein onddo bildu baino lehen, jabeari baimena eskatu behar zaio!

GEZURRA

**Libratzeko gura handia,
ez da beste biderik!**

Gutierrez, ibilbidetik urrun zaitez, eta huskinak hostoz edo harriz estali. Eta komuneko papera plastikozko zakutxo batean biltzea eta etxean botatzea atxiki ezazu gogean!

**Mendian ere lakastak
badira!**

Marmutxa horiek mendian ere daude! Zure burua zaindu ezazu jantzi luzeak eramanez. Arratsean, zure gorputza artoski miatu. Batto topatzen baduzu, lakasta kentzeko gailu batekin ken ezazu, desinfektatu, eta ziztatutako gunea zaindu.

egia

**Luberritze bat egiten ari
baldin badira, ibilbidez
aldatzen dut.**

Seinale batzuek ihizi aldi bat edo luberritze bat adierazten badute, ibilbidez alda ezazu! Adi egon zaitez urte osoan zehar baina batez ere urritik azarora, uso ihiziaren garaian, eta urritik apirilera, luberritze garaietan.

egia

**Mendian kanpatzea
baimendua da, nola ez!**

Kanpatzea (oihal etxolan, egokitutako kamioian...) debekatua da honi eskainitako lekuetatik kanpo. Kanpatze motzak, oihaletxolarekin ala gabe (eguzki sartzean jarri eta eguzki jaikitzean abiatu), ibilketa baten geldialdi gisa onartua da jabe pribatu edo publikoak baimenduz geroz.

GEZURRA

**Moto-krosez edonon
ibil naiteke,
bikain da!**

Ibilgailu motordunen zirkulazioa debekatua da Estatuko, departamenduko, herriko errepide eremu publikoetatik kanpo, baita zirkulazio publikora irekitako landa bide eta bide pribatuetatik kanpo ere.

egia

**Nire hondakin
biodegradagarriak
ere biltzen ditut!**

Ibilketaren denboran, zure hondakinak bil itzazu bizkar zakuan, hondakin organikoak barne: fruitu hezurak, banana azalak, etab. Nahiz eta biodegradagarriak izan, ikuspegia kutsatzen dute.

**Egur su inguruko gualdia,
hau zoragarria!**

GEZURRA

Aire librean, suak piztea debekatua da naturaguneetan, oihanean, larreetan, landa guneetan, oihan berrietan eta eremu horietatik 200 metroko inguruetan. Idorte garaietan, erretzea debekatua da arrisku handiko eremuetan.

PARTEKATZEKO OHITURA ONAK!



Ipar Euskal Herriko bideetan ibiltzeak jarrera egokia eta errespetutsua hartzea eskatzen du. Mendian eta baserrialdean, emazte eta gizonak bertan bizi dira eta lan egiten dute: ibilaldien abiatzeko aurreikusiak diren lekuetan aparka zaitez.

Presta zaitez abiatu baino lehen

Beharrezko materiala eraman ezazu (mapa, ura, jantzi egokiak...)

- Ahalaz ez joan bakarrik edo zure hurbileko bat abisa ezazu
- Ez ezazu erreka eta asketako ura edan eta ez zaitez bertan bainatu
- Eguraldia begira ezazu
- Mendiko suei eta ihizi aldiei buruzko argibideak bildu

Aparka zaitez eta ongi gidatu

- Baimenduak diren bideetan ibili. Zalantza bat baldin baduzu ez zaitez joan
- Kabala-talde bat gurutzatzen baduzu, abiadura eztitu ezazu
- Seinalatuak diren aparkaleku baimenduetan aparka zaitez

Mendia zaindu ezazu

- Zaku bat har ezazu zure hondakinak eta komuneko papera eramateko
- Kabalak urrundik begira itzazu, isiltasunean
- Baimenik gabe, ez itzazu basaloreak eta baiak edo onddoak bildu
- Seinalatuak diren bideak errespetatu itzazu eta bide seinalatuetan egon
- Zure zakurra loturik atxiki ezazu
- Ez ezazu surik piztu eta ez itzazu zure zigarreta muturrak bota

Beste erabiltzaileak eta laborantza aktibitateak errespetatu itzazu

- Xeilak berriz hetsi itzazu
- Ahalaz zure zakurrarekin ez ibil edo loturik atxiki ezazu
- Ez itzazu kabalak hunkitu edo ez ezazu janaririk eman
- Ibilbide bazterretan diren jabego pribatuak errespetatu itzazu

ARGIBIDE BALIAGARRIAK:

- » **Météo France**: www.meteofrance.fr
- » **Sokorriak / Larrialdiko deiak**: 112
- » **Luberritzeen egutegia**:
www.jaimelagriculture64.fr

ZURE IBILKETA PRESTA EZAZU

Ipar Euskal Herriko turismo bulegoekin harremanetan jar zaitez, topogida sorta bat proposatuko dizute edo lagundutako ibilketa batzuetara bideratuko zaituzte!